

Aterpetxea

- Aizue, badakizue aterpetxean tapakirik dagoen ala ez?
- Ba, ez. Berogailurik ez dagoela bai, baina besterik ez.
- Ba, gaur bertan idatziko diot berriz aterpetxeko arduradunari tapakirik edo lo-zakurik eraman behar dugun galdetzeko. Tapakirik ez badago... A zer hotza! Beste zerbait galdetuko diot?
- Bai, galdetu tabernan menua ematen duten eta zenbatean dagoen. Merkea bada, ez dugu janaririk eramango.
- Ados. Txakurrak onartzen dituzten galdetuko dut?
- Ez, onartzen dituzte, seguru. Lagun batek esan dit.
- Ordutegia ere galdetu beharko dugu, ea badagoen gauean itzultzeko ordutegirik. Gauean ateratzen bagara, jakin behar dugu hori.
- Galdeiozu gelak guk garbitu behar ditugun edo haiek egiten duten, eta zer ordutan utzi behar dugun aterpetxea. Hoteletan 12etan atera behar da, baina aterpetxeetan uste dut goizago egin behar dela.
- Hori badakigu, aurrekoan esan zidan goizeko hamarretan alde egin behar dugula.
- A, ados.
- Beste zalantzarik?
- Ez, nik uste dut ezetz.